

## Egur loteen zozketa

Gaur iluntzean  
esleituko  
dituzte, batzar  
aretoan ▶ 7



Harpidedunei banatua ▶ Osteguna ▶ 2006-02-09 ▶ IV. urtea ▶ 809. zenbakia ▶ [www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

# Joxe Arregi hiltzeraino torturatu zutela 25 urte beteko dira astelehenean

**ZIZURKIL** ▶ Torturaren aurkako  
ekitaldiak antolatu dituzte herrian;  
etzi, manifestazioa Donostian

**TORTURA** ▶ «Babestuta daude eta  
berdin torturatzen jarraitzen dute»,  
dio Joxe Arregiren arreba Maribik ▶ 4



Joxe Arregi zizurkildarra. HITZA



## Joseba Rojo eskiatzaile gazteak irabazi du Martxa Beret lasterketa

**TOLOSA** ▶ Alpino Uzturre elkarteko Joseba Rojok irabazi zuen,  
igandean, Lleidako Pirinioetan (Katalunia) jokaturako Martxa  
Beret (argazkian, eskiatzailea, helmugara iristen). Denera, 1.139  
lagunek hartu zuen parte proba ospetsuan, horietako asko  
eskualdekoak. Emaitza bikainak lortuta itzuli dira etxera. HITZA ▶ 3

**TOLOSA** ▶

## 2006ko aurrekontuak onartu ditu Udalak

Aldeko 11 boto, aurkako 3 eta  
2 abstentzio izan ziren bilkuran;  
Tolosa Bizirik kontra agertu zen ▶ 2

**ASTEASU** ▶

## Lau lagun pozoitu dira landetxe batean

Istripua gas galdarak  
sortu zuela uste dute ▶ 6

**ALBIZTUR-BIDEGOIAN** ▶

## Herritarren beharrak aztergai, Agenda 21 prozesuaren baitan

Bi herrietan batzarrak egin dituzte,  
iritziak eta kezak jasotzeko ▶ 5



Bidegoiango batzarra. HITZA

**ARESO** ▶

## Baserrietara doazen bi pista ari dira berritzen

Gereñone-Pedrone  
eta Txuine-Santuru ▶ 7



## ESKUBALOA ▶

**Garaipen bana jubenilen eta seniorren taldeentzat**

Seniorrek igoera gero eta gertuago dute; jubenilak, bestalde, hirugarren dira orain

## ERREDAKZIOA

Eskubaloi taldeek jardunaldi borobila izan zuten iragan asteburuan; izan ere, seniorrek eta jubenilek garaipena erdietsi zuten. Seniorrek Grosekoeen etxean jokatu zuten eta 25-33 irabazi zuten. Hala, igoera lortzeko beste pauso bat eman dute. Hiru jardunaldi falta zaizkie Liga amaitzeko eta igoera gero eta gertuago dute.

Jubenilek, berriz, hirugarren postuan jarraitzen dute, azken postuan dagoen Beasaini, «partida on bat burutu ta», 28-38ko emaitzarekin irabazi ostean.

## TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.**

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423  
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134  
▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411  
▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Iruia.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroizko dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

**Garraioak.**

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**Besterik.**

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrarmendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

## UDALA ▶

**2006ko aurrekontuak onartu ditu Udalak, aparteko bilkuran**

«Inbertsioei aurre egiteko» 8.973.611 euroko mailegua aurreikusi dute; alderdiak «kexu» azaldu dira gai honekin



Herenegun eginitako aparteko bilkuran onartu zituen Udalak 2006rako aurrekontuak. NOELIA LATABURU

## NOELIA LATABURU

2006. urteko aurrekontuak onartu zituen Tolosako Udalak, herenegun eginitako aparteko bilkuran. EAJk eta EBk alde bozkatu zuten, EAK aldeko bi boto eman zituen eta bi abstentzio, eta PP eta PSE-EE aurka azaldu ziren; beraz, 11 alde, 2 abstentzio eta 3 aurka —izan ere, PPko zinegotzi bakarrak hartu zuen parte bozketan—. Tolosa Bizirik herri ekimenak, halaber, bere iritzia eman zuen mahaiaren beste aldetik eta «aurkako jarrera» azaldu nahi izan zuten.

Aurrekontu bateratua (40.611.273.000 euro), Udalaren aurrekontua eta Iurreamendi egoitzarena, Tolargirena, Erretengibelena, Tolosa Lantzenena eta Tolosa Gasarena ekarri zituzten mahai gainera. Azken hauek aho batez onartu ziren; ez, ordea, bateratua. Luze jo zuen udaletxeko aurrekontuen gaineko eztabaidak. Alderdi bakoitzako ordezkariak birritan hitz egiteko parada izan zuten, non taldearen kezak eta aldeko zein aurkako jarrera azaldu zuen.

Tolosako alkate Jokin Bilda-

rratzek azaldu zuenez, egoera ekonomikoa «ona» bada ere, «inbertsio gogorrek aurreztutako fondoak desagertzea ekarri dute». Hauetan, Usabalgo inbertsioa izan da «eragile nabarmenena». Diru kopuru hau maileguen bitartez ordezkatu dute, 2004an Euskadiko Kutxarekin eginitakoa (1.673.000 euro) eta iaz Kutxarekin eginitakoa (7.146.000 euro). Honekin batera, 2006rako 8.973.611 euroko mailegua kontratatzea aurreikusi dute. Alderdi guztiek mailegu honen gaineko «kezka nabarmena» azaldu zuten.

**Gastuak eta sarrerak, gora**

2006ko aurrekontuen helburuak ere aipatu zituen Bildarrratzek, «baliabideen optimizazioa», hain zuzen. Hori lortzeko, «gastu arrunten kontrola eta arrazionalizazioa egin eta eutsi» nahi dute. Halaber, errekurtsioak inbertsiorako erabili nahi dituzte, «azpiegiturarako eta administrarietarako». Udaletxeko berezko aurrekontuko kapituluak gisa honetara laburtu daitezke: diru-sarrera arruntak iazko 19.943.866 eurotik

20.976.120 eurotara igaroko dira aurren. Hau da, 1.032.254 euro gehiago izango dira (%5,18ko hazkunde). Gastu arruntak ere gora egingo dute; 15.923.437 euro izatetik 17.490.991 euro izatera igaroko delarik. Bada, 1.567.554 euroko igoera izango du (%9,84, hain zuzen ere). Honen barnean, langile gastuen igoera go-raipatu nahi izan zuten. Soldat %4,10 igotzea aurreikusi dute.

Aurrezki arrunta, hau da, diru-sarrera arrunten eta gastu arrunten arteko erlazioa, 4.020.429 eurotik 3.485.129 euroko aldea izango duelarik iazkoarekin alderatuz (%13,31ko beherakada). Bestalde, inbertsio «garrantzitsuak» aurreikusten dituzte aurrekontu hauetan (15.964.240 euro). Aipagarrienak Leidor aretoaren berritze-lanak (2.246.000 euro); Zerkausiko berritze-lanak (1.561.497 euro); Tolosa Lantzen enpresari transferentzia, Usabalgo lanak direla eta (4.745.000 euro); eta Toriles eraikuntzako lanen egikaritzarako Erretengibel enpresaren mailegua (1.210.000 euro).

## ERREAKZIOAK ▶

JOSE MARIA VIEITES  
EB

«Behar sozialekiko oreka erakusten dute»

«Aurrekontu hauek alor sozialeko beharren eta Udalak berak dituen baliabideen arteko oreka erakusten dute eta alde azalduko naiz, baina gertutik zainduko ditut».

OSCAR RENEDO

PSE-EE

«Aurrekontu hauek ez gaituzte ordezkatzeko»

«Tristura handia sentitzen dugu aurrekontuak zein erara gauzatu diren ikustean; izan ere, gure iritzia ez da aintzat hartu, ez ikusiarena egin duzue gurekin beste behin».

ANJEL YAÑEZ

PP

«Beste urte batez, desabantailan gaude»

«Beste urte batez, gutxiengoa izaten jarraitzen dugu eta desabantaila horrekin ezin dugu ongi lanik egin; gainera, gastuek nabarmen egin dute gora».

ONINTZA LASA

EA

«Aurrerapausoak ukaezinak dira»

«Izpiritu eraikitzailearekin jokatu nahi dugu: aurrerapauso ukaezinak eman dira baina gastu korrontearen gaiak kezkatzen gaitu, nabarmen igo delako».

JOKIN BILDARRATZ

EAJ

«Egoera ekonomikoa oso zuzena da»

«Egoera ekonomikoa zuzena da, diru-sarrerak gastuak baino altuagoak baitira. Hala ere, Usabalgo inbertsioari aurre egiteko maileguetara jo behar izan dugu».

ANTTON IZAGIRRE

TOLOSA BIZIRIK

«Hauek aurrekontu elektoralistak dira»

«Aurrekontuak promesa hutsa dira, handikeria gehiegi dago, aurrekontu elektoralistak dira, non nahia eta ahalmena nahastu egiten diren; miseriaren gestioa dago».

ESKIA ▶

# Alpino Uzturreko Joseba Rojo, irabazle Martxa Bereten

Guztira, 1.139 eskiatzailek hartu zuten parte Pirinioetako proba garrantzitsu honetan; tartean ziren eskualdeko asko, eta emaitza bikainak lortu zituzten

**JOXEMI SAIZAR**

Alpino Uzturre ekarteko Joseba Rojo tolosarra izan zen irabazle igandean jokatu zen iraupen eskiko Marxa Bereten (Lleida, Katalunia), 10 kilometroko lasterketan. Bere anaia Imanol Rojo 6.a eta Erlantz Gonzalez 7.a izan ziren lasterketa berean eta nesken lasterketan, neurri berean, Amaia Mujika 10.a izan zen. 20 kilometroko lasterketan, berriz, Lourdes Irazusta 10.a izan zela eta Aitor Igarategi 14.a izan zela nabarmendu behar da. 30 kilometrokoan, berriz, Isabel Dumall asteasuarra 7.a eta Mertxe Iriberrri 8.a aipatu behar dira bereziki.

Bezperan sprint modalitateko Espainiako Txapelketa jokatu zen Salardun, Bereten ondoren. Kadete mailan, Joseba Rojo bera Espainiako Txapeldun atara zen. Igandean, eguraldi hotz eta eguzkitsuarekin hasi ziren lasterketak —denak batera—, goizeko hamarretan. Bezperako gauean zero azpitik 17 graduraino jaitsi ziren tenperaturak.

Oraingo edizioan, 28.a, ohiko norabidea aldatzea erabaki zuen Neguko Kirolen Kataluniako Federazioak. Bi lasterketa luzeenek, 20 kilometrokoak eta 30ekoak, hiru kilometroko *propina* izan zuten, eta eskiatzaile herrikoiek ederki pairatu zuten luzapena.

Proba hau Pirinioetako garrantzitsuena da tradizio eta partaidetza aldetik. Guztira, 1.139 lagun iritsi ziren helmugara proba desberdinak burutu: 245 emakume eta 281 gizonezko 10 kilometroko proban, 86 emakume eta 233 gizon 20koan eta 21 emakume eta 213 gizon 30ekoan. Euskal Herriko eskiatzaile ugari bildu zen bertan, eta ikusle animatzaileak ere ez zituzten falta inguruan. Euskararen presentzia bermatzeko antolaketa era-kutsitako ahalegina ere txalotzekoa da. Tolosaldeko 56 eskiatzaile iritsi ziren helmugara, gehienak Alpino Uzturre elkartekoak. Sailkapen osoa [www.fceh.org](http://www.fceh.org) webgunean ikus daiteke eta Earki gatik izeneko talde berriko eskiatzaile batzuk aurkitzen dira bertan. Ugarteako ote dira?



Marxa Bereteko parte-hartzaileak, irteeraren unean. HITZA

## Lehia bizia 10 kilometrotan

Lehen esan bezala, mila lagun baino gehiago abiatu ziren denak batera, bakoitzak bere neurri eta helburu propioarekin: gutxi batzuk lehiatzaile eta postu on bat lortzera, gehienok kirola eginez ahalik eta ondoren pasatzera eta egun ederraz disfrutatza.

10 kilometroko lasterketan segituan nabarmendu ziren Joseba Rojo eta eskiatzaile andaluziar bat. Bien artean lehia bizia izan zen ia karrera osoan, tarteka bata besteari aurre hartuz. Baina zortzigarren kilometroan, aldapa behean, tolosarrak aldea hartu zion aurka-koiari eta argi erakutsi zuen denboraldi bikaina ari dela burutuz, entrenamenduetan egindako lan gogoraren ondorioz. Azkenean bost segundoko tartea atera zion bere aurkari zuzenenari. Garrantzi handiko garaipena izan zen, Pirinio osoko eta urrutigoko eskiatzaile onenak biltzen dituen lasterketa dela kontuan izanik.

Lehen aipatutako kirolariek gain, eskualdeko beste batzuk ere nabarmendu behar dira: 10 kilometroko proban Xabier



Joseba Rojo eskiatzaile tolosarra, arriboko irudian. HITZA

Saizar (19.a), Estanis Arsuaga (30.a) eta Eneritz Gonzalez (56.a); 20 kilometroko lasterketan Erea Lopez (27.a) eta 30 kilometroko proban Jon Lanpre zizurkildarra (20.a) eta Txiki Plazas (22.a). Azken honek Alpino Uzturre elkarteko eskiatzaile gazteen prestatzaile gisa egiten ari den lan bikaina eta txalogarria ez da alde batera utzi behar eta jadanik bere fruituak ematen hasi dela esan behar da.

Aurrera begiraturaz, datorren asteburuan Euskadiko Txapelketa izango dute Alpino Uzturreko iraupen eskiatzaileek Candanchuko pistetan (Huescako Pirinioak, Espainia), maila guztietan eta banaka. Eta Inauterietan, berriz, jaiki alde batera utzi eta Espainiako Txapelketa izango dute toki berean nagusien mailan banaka eta erreleboena autonomien artean. Orain artekoa ikusita, ez da harrizkoa izango Tolosaldeko ordezkariak podium haue-tan ikustea. Ez da erraza izango, baina horretan saiatuko dira guztiak, zalantzarik ez egin.

Bestalde, maila herrikoian ari diren eskualdeko zenbait eskiatzaile beterrano Jurako (Frantzia) martxa luze ospetsuan izango dira partaide asteburu honetan. European oso ohikoak dira martxa herriko luze hauek negu osoan zehar. Martxoko lehen igandean, esaterako, Suediako Vasaloppet proba ezaguna jokatu da. 90 kilometroko lasterketa hau burutzen saiatuko diren 15.800 parte-hartzaileen artean ere ziur ez direla eskiatzaile tolosarrak faltako.

XAKE ▶

## Eskolarteko Txapelketa amaitu da bi mailatan

**N. LATABURU**

Aurreko igandean Eskolarteko Banakako Xake Txapelketa hirugarren eta azken saioa jokatu zen. Nesken artean bai, baina gainontzean ez zen aldaketarik izan sailkapenetan. Infantiletan, Villabonako Jesusen Bihotzako Xabier Corredera izan zen txapelduna. Bigarren ikastetxe bereko Aitor Alkorta izan zen, eta hirugarren Tolosako Orixeo Aimar Intxaurren. Alebinetan, Muñagorri Ikastolako (Berastegi) Beñat Salbarredik eraman zuen urrea, Uzturreko (Ibarra) Jon Romerok zilarra eta Muñagorriko Jon Salbarredik brontzea. Nesketan lehena Anoetako Ikastolako Oihana Etxenike izan zen. Ernio-beako (Villabona) Ane Chaparro izan zen bigarren eta Laskoraingo (Tolosa) Sara Zabala hirugarren. Infantil eta alebinena bukatuta, benjaminen txanda da orain. Martxoaren 5ean hasiko dira, Tolosako Xake Elkarteak, 11:00etan.

Bestalde, Gipuzkoako Ligan, Tolosa-Ibarrako bi taldeak Donostira joan ziren 4. txanda jokatzera. Gorengo mailan, lehen taldeak 2,5 eta 1,5 galdu zuten Fortunaren aurka, Barojak irabazita eta Etxeberriak berdinduta. Hirugarren mailan, bigarren taldeak bina berdindu zuten Grosekin. Intxaurren abizen bereko bi jokalariek lortu zituzten puntuak.

### iragarki laburrak ▶

**LANA**

**Tabernaria.** Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan 4 orduz lan egiteko. Eskarmentua duena. 635 74 52 91.

**Emakumea.** Emakumea behar da Tolosan, goiz eta arratsalderako, etxeko lanak egin eta ume-zain artzeko. 660 44 76 30.

**Ume zaintzailea.** Alegian, neska behar da 05:30etik 09:00ak arte umeei gosaria eman eta eskolara eramateko bakarrik. Deitu 645 71 55 78ra [atzo argitaratutako telefonoa oker zegoen; hauxe da zuzena].

**GALDUTAKOAK**

**Txakurra.** Txakur emea galdu da. Pekines gurutzatua. Marroia. 943 65 39 55.

ZIZURKIL ▶ TORTURAREN AURKAKO EGUNA

# Joxe Arregi hiltzeraino torturatu zuteneko 25. urteurrena, astelehenean

Ekitaldiak antolatu dituzte herrian torturaren aurka bihar hasi eta astelehena bitartean; larunbaterako manifestazio nazionalera deitu dute Donostian



Joxe Arregiren gorpua, jasandako torturengatik hil ondoren. HITZA

IMANOL GARCIA

Hilaren 13an 25 urte beteko dira Joxe Arregi zizurkildarra torturatu eta erahil zutela. Hain zuzen, data hori Torturaren Aurkako Eguna izendatu dute, eta bihar hasi eta astelehena arte ekitaldiak antolatu dituzte Zizurkilen; torturaren aurkako manifestazio nazionala ere egingo dute Donostian, etzi.

Antzerki emanaldi batekin hasiko dira ekitaldiak. Bihar, 22:30ean, Atxulondo kultur etxean, Lur Zabal taldeak torturari buruzko antzezlan eskainiko du, *Hemen bakarrik gaude, lur zabal honetan* izeneko. Etzi, larunbatean, manifestazio nazionalera deitu dute. 17:30ean abiatuko da Donostiako Bulebarretik. Igandean mendi ibilaldia antolatu dute.

09:00etatik aterako dira Joxe Arregi plazatik. Ondoren, ekitaldi politikoa egingo dute, 13:00etan, Joxe Arregi plazan bertan. Ekitaldia eta gero Urkamendi elkartearen bazkaltzeko elkartuko dira. Txartelak ohiko lekuetan salgai daudela adierazi dute antolatzaileek.

Joxe Arregiren erahilketaren urteurrenean, astelehenean, lore eskaintza egingo dute Zizurkilgo hilerrian. 19:30ean izango da ekitaldia. Bestalde, bihartik hasi eta astelehena bitarte, Atxulondo kultur etxean torturari buruzko erakusketak ikusteko aukera egingo da.

## Manifestua torturaren aurka

Larunbateko manifestaziora deitzeko prentsaurrekoa egin zuten Askatasunak eta azken urteotan tortura salatu dituztenek —bertan izan ziren ere Nekane Txapartegi asteasuarra eta Martxelo Otamendi tolosarra—. Agerraldian irakurritako manifestuan, Euskal Herrian «tortura errealtate ukaezina» dela salatu zuten. «Azkeneko 25 urteotan zortzi euskal herritar [tartean Joxe Arregi zizurkildarra eta Joxean Lasa eta Joxi Zabala tolosarrak] komisaria eta kasernen torturapean hil egin dira, eta 6.000tik gorako tortura salaketa judizial jaso dira».

Egoera horren aurrean eta «tortura dagoela eta aplikatzen dela jakinda», zenbait aldarrikapen exijitu zituzten. Alde batetik, «terrorismoaren aurkako legea eta atxilotuen inkomunikazioa indargabetzea». Espainiako Auzitegi Nazionala «Euskal Herrian esku hartzerik duen epaitegi berezi gisa desagertzea». Auzitegi horren jarduerak «torturaren erabilera ahalbiderratu eta estaltzen du», adierazi zuten, eta «tortura erabiltzetik suertatzen diren emaitzak ontzat hartu eta euskal herritarrek zigortzeko baliatzen» dituela gaineratu. Tortura salaketak «ez ikertuz eta haien errutinazko artxibatzea burutuz» aritzen diren auzitegien «paper laguntzaile» ere aipatu zuten.

Beste aldarrikapen bat prozedura judizialei buruzkoa izan zen: «Atxilotuei tortura edota inkomunikazioa aplikatu zaizkion zigor prozedura judizial guztiak baliogabetzea». Aitorza politikoa egitea ere eskatu zuten: «Tortura dagoela eta sistematikoki erabiltzen dela politikoki aitortzea, torturak kaltetu guztion aurrean nolabaiteko errekonozimendu gisa». Azkenik, «Estatu aparatuen erantzukizuna depuratzeko torturari dagokionez eta polizia indar errepresiboak desagertzea» exijitu zuten.

MARIBI ARREGI ▶ JOXE ARREGIREN ARREBA

## «Aldaketa handirik ez da egon, babestuta daude eta torturatzen berdin jarraitzen dute»

Maribi Arregik ez du ikusten aldaketa handirik egon denik bere anaia hiltzeraino torturatu zuten garai haietatik.

### Nola gogoratzen dituzu orain 25 urte gertatutakoak?

Joxek bestaldera aldegin zuen eta bisitan joaten ginen. Bi urte zeramatzala han, irratiz jakin genuen lau atxilotu zituztela Madrilan eta horietako bat zaurituta zegoela. Uste genuen

gurea zela zaurituta zegoena, baina gero Isidro zumaiarra zela jakin genuen. Inkomunikatuta izan zituzten eta ezin genun bera ikusi. Azkeneko asteburuan, bidaia prestatzen ari zirela, berriro komunikabideetatik jakin genuen Joxe erahila izan zela.

### Zer egin zenuten orduan?

Nire senideak Madrilera joan ziren eta autopsia egin ondo-

ren, gorputza ekarri behar zutela eta, hilkutxa bidali zuten ez irekitzeko aginduarekin. Herrira ekarri zenean plazan jarri zen eta hilkutza irekitzeko erabakia hartu zen, ikusteko zer zegoen. Eta irekitzerakoan azaldu zen gorpua zegoen bezala. Gero jakin genuen Joxek azken orduan Iñaki Agirrerekin eta galiziar batekin egoteko modua izan zuela, eta nolabait azken ordu horietan laguntza izan zuela.

### Torturaren gaiaren inguruan egon da aldaketarik?

Alde horretatik aldaketa handirik ez, torturatzen jarraitzen baita. Inongo beldurrik gabe jarraitzen dute torturatzen.

Hor dago ere Unai Romanoren kasua, artxibatu egin dutena. Gure kasuan ez zuten zigor asko jaso. Nik uste berdin jarraitzen dutela. Babestuta daude, eta torturatzen berdin jarraitzen dute. Gurea erori zen eta ez dakit nola ez diren askoz gehiago erortzen.

### Antonio Gil Rubiales, torturazaitaleetako bat, Espainiako Poliziaren Tenerifeko buru egin zuten iaz. Zer sentitu zenuen berria jakiterakoan?

Sekulako amorrua sentituen, inpotentzia. Nola gerta daiteke horrelako gauza bat? Baina gauzak horrela dira eta, esan bezala, babes osoa dute. ◀



**PELLO ERROTA**  
herri ikastetxea  
ASTEASU -Elizmendi z/g

- Herrian bertan
- Euskalduna
- Anitza
- Baliabidez eta metodologiak gaurkotua

Tel./faxa: 943 69 22 13      Posta elektronikoa: 012017aa@hezkuntza.net  
Haur Hezkuntza: 943 69 29 25      Web orria: www.euskalnet.net/pelloerrot

**ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA**  
IKAS KOMUNITATEA



**PEDRO M.ª OTAÑO HERRI ESKOLA**

Pagamuño auzoa, 16 - ☎ 943 6914 78 - ZIZURKIL  
Posta elektronikoa: 012041aa@hezkuntza.net

## ALBIZTUR-BIDEGOIAN ▶ AGENDA 21

## NEREA URBIZU

Agenda 21 egitasmoa garatzen eta bultzatzen duen hainbat herriren taldea da Udaltalde 21. Talde horren barruan dira, bestak beste, Albiztur eta Bidegoian. Tolomendiko Garbiñe Olaberriaren hitzetan, «berezia» da udal talde hau, «landa eremuetan dagoelako», landa eremuko Udaltalde 21eko pilotua denak adierazten zuen moduan.

«Udalen tresna erabilgarria» izan nahi du proiektu honen, herritarren gabeziak nolabait betetzeko. Hiru zutabe ditu oinarritzat: ekonomia arloa, gizarte eta ingurumena.

Hilabeteetan zehar, Agenda 21 prozesuak erabiltzen duen metodologiari jarraituz —«herriaren ahotsa kontuan izanik»—, diagnostikoa egiten aritu dira bai Albizturren eta baita Bidegoianen ere. Lau edo bost urteetan egin nahi dituztenak bildu dituzte azken bilera hauetan.

Albizturren, esaterako, abenduan egin zuten prozesuaren bigarren herri batzarra. Ekin-tza planen zirriborroa aurkeztu zieten bertara bildutako herritarrei, 24 lagun inguru, guztira. «Ideia, asmo eta behar asko ikusten dituzte albiztuarrak, baina horietatik guztietatik lehentasuna batzuei eman behar zitzaien, lau urte horietan aukeratutako egitasmo guztiak aurrera eramane ahal izateko». Gai kopuru mardula zela eta, hiru taldetan banatu ziren parte-hartzaileak. Gaiak gehiago zehaztearen beharra ikusi zuten denek, eta ordu batzuen buruan ustez lehentasuna zuten gaiak aurkeztu egin zituzten hiru taldeek.

Hain zuzen ere, hauek izan ziren gai garrantzitsuenak haientzat: arau subsidiarioaren berrikuspen fasean daude, eta horrekin garrantzia herriko perfil guztietako pertsonen beharrik aztertutako ondoren, etxebizitzari eman zioten orokorrean. Arau subsidiarioak aldatuko dituztenez, kontuan izan behar dute herriko biztanleek zer behar dituzten etxebizitzari egoki bat izateko, kasuan kasukoa: baserriarren bat herrira doala, gazte jendea, seme-alabak dituztenak... errealtateari aurre egiteko.

Beste gai bat herrian pasatzen diren autoen abiadura murrizteko dispositiboak jartzearena izan zen, «arriakua ikusten dutelako albiztuarrak». Herriko bide zaharren inventarioa ere egin nahi du Udalak, eta berreskuratzeko lanak egiten hasi nahi dute. Espaloiak egokitzeko eta berri-tzeko beharra ere ikusi zuten



Bidegoiango Udalsarea 21eko bigarren batzarrean elkartu zirenak, bilerako une batean. HITZA

## Agenda 21 prozesuan herritarren beharrak aztertu dituzte

Herri batzarrak egin dituzte berriki Albizturren eta Bidegoianen, eta kezka berdintsuak plazaratu bietan

bileran parte hartu zuten herritarrek.

Harrobiaren kontua ere ahotan egon zen, lehenengo bileran izan zen moduan, «eztandak eta hotsak» entzuten baitira herrian. Baina alkateak argitu zuen moduan, harrobiko arduradunekin hitz eginda dago, «eta ez zaio inori interesatzen hotsak ateratzea».

Bestalde, parte-hartzeari ere garrantzia eman diote. «Parte-hartze kultura hori bultzatu egin nahi dute». Uraren inguruak ere, saneamendua, hain zuzen, hitz egin zituzten, saneamendua. Eta, azkenik, baserriarrei nekazaritza lanak egiteko eskaintzea izan zuten mintzagai.

### Bidegoianen ere batzarra

Bidegoianen ere hiru taldetan banatu ziren batzarrean parte hartu zutenak. Aste horretan, baina, elurtea izan zen: horre-xegatik lagun gutxiago bildu zen, 14 zehazki. Hala ere, hiru taldetan banatuta egin zuten

lan, eta bukaeran denak elkartu egin ziren jorratutako gaiak ezagutzera emateko eta denon artean adosteko.

Gaien artean etxebizitzena atera zen, eta jorratuena izan zen denetan. Babes ofizialekoak izan zituzten hizpide nagusi. Hirigintza ere aritu ziren, lora-tegiak egiteko, kaleko eta plazako zoruak konpontzeko edota espaloiak egokitzeko, esaterako —horietako batzuk martxan badira, eta herritarrek lan horien beharra azpimarratu zuten—.

Internet zerbitzuari ere garrantzia eman zioten batzarrean: Beizama, Errezil, Albiztur eta Bidegoian herriei egokitu-tako eguneko zentroa gehiago landu nahi dute, «etekin handiagoa» atera ahal zaiola ikusten baitute herritarrek.

Kirol instalazioen gainean hausnarketa egin behar zela ere ikusi zuten bilerara joandakoak: aldagelak berri beharretan daude, pilotalekua ere hobetu egin behar da, eta gimnasia egitearen beharra ote

dagoen ere aipatu zuten bildutakoak.

Albizturren zioten moduan, herria zeharkatzen duen errepidetik autoak abiadura motelagoan igarotzeko dispositiboak jartzeko beharra ikusi dute Bidegoianen.

Landa gune hauetan errepikatzen den arazoa da baserri eta etxe asko eremu zabalean daudela, eta bertaratzeko errepideak ez daudela egoera onegian. Berritzen badira ere, ez

da inoiz nahikoa inoiz, eta errepideak etengabe berri egin behar direla pentsatzen dute herritarrek.

Albizturren bezala, parte-hartzeari garrantzia eman nahi diote bidegoiandarrek. «Jendea herrian dauden ekintzetaz jakiteko eta haietan parte hartzeko bidea erraztu» nahi dute.

Uraren hornidura hobetzea ere ezinbestekoa ikusten dute, zaharkituta daudelako, eta sakabanatuta daudelako. Zaila izaten da ura etxe guztietara eramatea. Saneamendu alde-tik arazoak beti egoten dira, eta horri konponbidea eman nahi diote. Horrekin batera, gasifikazioa ere puntu aipagarritzat jo dute: gas naturalik ez dago herrian, eta deposituak jarri behar izaten dituzte.

Ekonomia arloan turismoari bultzada eman nahi diote. Aldi berean, industria bultzatu, eta «bien arteko oreka bilatu» egin behar dela iruditzen zaie herritarrei.

Nekazaritzari begira, arau subsidiarioaren berrikuspenen, zerbitu eraiki behar de-neanlur sailen gainbegiraketa eskatu zuten: nekazaritzarako egokienak diren lurrak mantendu egin nahi dituzte horretarako, eta hain onak ez direnak, aldez, etxebizitzak egiteko.

### Errepideen egoera

Bai Albizturren eta bai Bidegoianen herrietara iristen diren bideak berri egin nahi dituzte; estuak izaten dira, eta gero eta trafiko gehiago igarotzen da haietatik. «Baina hori Gipuzkoako Foru Aldundiak egin behar dituen lanak dira», azaldu du Garbiñe Olaberriak.

Orain dela urtebete ekin zioten Agenda 21 prozesuari herri hauetan. Udalak ekintzak egiten ari dira pixkanaka, beste planifikazio osatuago batekin. Hasitako prozesua, dena den, ez da bukatu, eta bost urteren buruan emaitzak ikusiko direla uste dute. Hemendik urte batera berriz ere elkartuko dira, aipatutako asmo guztien balantzea eta emaitzak ikusteko.



**NEREA**  
1962

Erremontari kolea z/g  
**TOLOSA**  
Tel.: 943 67 16 30  
**LENTERIA**



**Kuadrila eta taldeentzat -%10**

**INAUTERIAK**

Helduentzat eta haurrentzat

**Koloretako kamisetak**  
**Kolore bizi eta marradun galtzerdiak**  
**Pantiak, eskularruak...**

## IBARRA ▶

## Gazteen erronkei buruzko hitzaldia gaur Gaztetxean

LAB sindikatuko kide batek 2006rako gazte erronkak hitzaldia eskainiko du gaur, 19:30ean, Ibarako Gaztetxean. Herritar guztiak gonbidatu dituzte bertako arduradunek.

## BERASTEGI ▶

## Podologoaren bisita izango da hilaren 25ean

Podologoaren bisita izango du Gaztainondo jubilatutako elkartek hilaren 25ean, 09:30etik 12:15era. Elkartean bertan edo 943 68 32 64 edo 943 68 32 02 zenbakietan hartu ahal da ordua.

## ASTEASU ▶

## Pilota partidak antolatu ditu etzi Botivoleak

Botivoleak antolatuta, etzi Banakako Pilota Txapelketako saioa ikusteko aukera izango da pilotalekuan. 22:30 hasiko da saioa Iñaki Esnal eta Gonzalo Velascoren arteko norgehiagokarekin. Ondoren, Mikel Goñik eta Medinak osaturiko bikoteak Tirapu-Gabbarri II.aren aurka egingo du.

## IBARRA ▶

## Indiari buruzko erakusketa hilaren 15a arte

Indiako egoerari buruzko *Calcuta: begirada zabalik* argazki erakusketa dago ikusgai Benito izagirre kultur etxean, Ibaratik Misio Taldeak antolatuta, hilaren 15a bitarte.

## ASTEASU ▶ EZBEHARRA

## Lau lagun pozoitu dira landaetxe batean

Donostiako Ospitalera eta Santanderrekora eraman zituzten zaurituak; istripua gas galdarak sortua izan zela uste dute

## ERREDAKZIOA

Espainiatik etorritako lau lagun Donostiako Ospitalera eraman behar izan zituzten atzo goizean, Asteasuko Ugarte nekazaritza turismoko etxe batean gasa arnastu eta intoxikatuta. Kaltetuak 27 eta 60 urte bitarteko lau gizonezko dira, hiru Badajozekoak (Extremadura) eta laugarrena Burgoskoa (Gaztela).

Goizeko zazpiak aldera jaso zuten SOS Deiak-en Asteasuko etxe batean lau pertsona zorabiatuta zeudela jakinarazi zuen abisua; hain zuzen ere, kalte-tuetako bat izan zen abisua utzi zuena, eta arnasa hartzeko zailtasunak zituztela erantsi

zuen. Suhiltzaileak, Ertzaintza eta osasun larrialdiko zerbitzuak segituan heldu ziren ez-beharrak gertatu zen nekazaritza turismoko etxera. Ordurako, baina, etxearen nagusiak atea bota eta barruan ondoezk zeuden lau lagunak kanporatu ahal izan zituen. Laurak ere, zorabiatuta aurkitzen ziren, baina korderik ez zuten galdu.

60, 58, 34 eta 27 urteko lau gizonezko dira gasarekin pozoitu direnak, hiru Badajozekoak eta laugarrena Burgoskoa. Antza, zonaldeko lantegi batean ari ziren lanean, eta horretatik zuten bizileku nekazal etxea egunotan. Larrialdi zerbitzuek Donostiako Ospitalera

eraman zituzten zaurituak ambulanzian. Lau horietatik, ordea, kalte gutxien jasan zituen geratu zen bertan, eta behaketan egon ondoren, atzo arratsaldean hartu zuen alta. Beste hirurak karbono monoxido maila altua zutenez Santanderreko (Espainia) Marques de Valdecilla Ospitalera eramatea erabaki zuten Donostia Ospitaleko arduradunek, han kamera hiperbarikoa dutelako.

Oraindik ez dago argi gas isuria zerk eragin zuen, baina suhiltzaileek egindako lehen ikerketen arabera, baliteke galdarak gasa behar bezala erretzen ez zuelako gertatu izana istripua.

## BERASTEGI ▶

## Hilaren 18an egingo dute mozorroen jaia herritarrek

Azken bi urteetan bezala, aurten ere Inauteri eguna antolatu dute

## I. TERRADILLOS

Hilaren 18an, hau da, datorren larunbatean, Inauteriak ospatuko dituzte Berastegin, azken bi urteetan egin duten moduan, Aldin kultur eta kirol elkarteak eta Guraso Elkarteak antolatuta. Hala, besteak beste, herriko dantzari txikien dantza saioa, txokolatada eta herri afaria izango dira egunean zehar. Afariarako txartelak eskuratu nahi dituenak eskuragai izango ditu Urepele Elkartean eta Zelai tabernan, 18 euroren truke, eta bihar izango da azken eguna.

## GIZARTEA ▶



## Saharara bidean dira elikagaiak

I. Terradillos ▶ Azken asteetan Sahararen aldeko karabana bidez eskualdean bildutako konpresak, hegaluzeak eta azukrea Sahara bidean jarriko dituzte. Izan ere, atzo bete zuten kamioia Tolosaldea Saharekin elkarteko ordezkariak, eta beste eskualdeetan bildutakoarekin batera Saharara eramango dituzte. 3.500 kilo izan da herritarren laguntzarekin eskualdean jaso ahal izan duten kopurua. Tolosaldean, konpresak, hegaluzea eta azukreaz gain, beste hainbat produktu ere jaso dituzte hara eramateko. I. T.

## hilberria ▶

Joxemartin Apalategi Begiristain  
(Gerriko Ikerlan Bekako zuzendari zientifikoa)

«Pertsona batentzat bere bizitza guztiko gertakari nagusienak dira bere jaiotza eta bere heriotza»

Zure jaiotza eta heriotza garrantzitsuak izan dira guretzat ere. Ez adiorik eta mila esker Joxemartin, GERRIKO Ikerlan Bekan irakatsitako guztiagatik.

Hileta elizkizuna, Ataun San Gregorion, GAUR, arratsaldeko 19:00etan.

Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea, Maizpide euskaltegia, Lazkaoko Udala  
LAZKAO, 2006ko otsailaren 9a

## hilberria ▶

## Bitoriano Arrazola Elorza

Herenegun hil zen. Legazpin.

Urola Garaiko zure kideek ez zaitugu ahaztuko

Bidea Eginez elkarteak

LEGAZPI, 2006ko otsailaren 9a



▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan  
50.000 etxetara**

HITZA guztiaren prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

ARESO ▶ HIRIGINTZA

# Gereñone-Pedrone, Txuine-Santuru baserrietara doazen bi pistak berritzen ari dira

Bazterrak garbitu eta zabaldu eta zoladura berria botako dute; Herri-lanetako Hirurteko Planean sartu eta onartutako egitasmoa izaki, %70eko laguntza du



Gereñonera eta Pedronera —irudian— eta Txuiner tea Santurura pistak berritzen ari dira. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Aresoko herrian hainbat herri-lan egitekoak dituzte aurten goian. Batzuk oraindik egitasmo diren bitartean, beste batzuk

aurreratuta dituzte eta zenbait, jada, egiten ere ari dira.

Hori da berritzen ari diren bi pisten kasua. Bertako Udaletik jakitera eman dutenez, Gereñonera eta Pedronera doan

pista alde batetik eta Txuiner tea Santurura doana bestetik, eliz ingurutik eskuin-ekzer ateraten diren bi adarrak, berrituzko lanetan ari dira: lehen egin zirenean asfaltatu eta be-

rehala, zahartuta eta zulatuta zeudelarik, orain bide bazterrak garbitu eta zorua berdindu eta berritu behar dituzte.

## Zolaberritzea

Baiezta zuten, aurreko egun hauetan bide bazterrak egiten aritu dira, ertzak garbitu eta zaborrak pilatzen; datozenetan zolaberritzeari ekinen diote.

Lan hauek egiten Eber erakuntza enpresa ari da. Eta, orotara, 50 mila euroko aurrekontua dute obra hauek. Zehaztu dutenez, lan hauek egiteko dirulaguntza izendatuta dute Nafarroako Gobernu Toki Administrazioetik. Beste egitasmo batzuekin batera, bi pista hauek berritzea laguntza eskaria egin omen zuten Hirurteko Planerako eta, zehaztu zuten, «bi proiektuak bat eginda baina onartua» izan zen. Horrela, lan hauen aurrekontuaren %70eko laguntza esleitu zioten Aresoko herriari: ondorioz, ia 35 mila euro jasoko di-

tuelarik Aresoko Udalak aita-tutako pista horiek berritzea. «Gainerakoa herriko altor publikoaren kontura oraindik beharko dugun», zioten.

Hirigintzan beste egitasmo batzuk ere badituzte eskuartean, jakitera eman zuten: herriko urbanizazio lanak egitea eta herriguneko zorua adokinatzea.

## Urbanizazio-lan osoa

Proiektuak, bai urbanizazio lanei dagokiena eta bai zoladurari dagokiena eginak badaude ere, batzarrean onartzerako «auzotarrekin eta zuzeneko eragindakoekin moldaketak eta nabardurak zehazten eta adosten» hastekoak dira; zuzenketa horiek txertatuta eramanen omen dituzte proiektuak aurrera, alegia, batzarrean behin-behingo onartu, behar den epean jendaurrean eduki, behin betiko onartu eta gero, hasi esleipenaren prozedurarekin.

Egitasmo honen zergatiak azaltzerakoan aitatu zuten, gerora Areson ere jarri nahi luketen balizko «haraztegia erakitzeke, derrigorrezko baldintza da euri urak eta ur beltzak berezita edukitzea. Hemen ez daude hala eta hori da orain egin nahi dena», azaldu zuten. Eta behin lurra zulatzen hasita zerbitzu guztiak sartuko dituzte eta «ondoren egin beharrekoa zolaberritzea ere bada», gaineratu. Horren harira, herrigunean, zoruari, kaltetada-harria jartzeko asmoa agertu zuten.

ARESO ▶ MENDIA

## Egur loteen zozketa eginen dute gaur bertan

Bere garaian izena eman zuten herritarren artean eginen dute zozketa batzar aretoan

J. ASTIBIA

Gaur arratsaldean, 19:30ean, dute egitekoa Areson egur loteen zozketa, udaletxeko batzar aretoan. Halaxe dio otsailaren 2an argitara ateratako bandoak.

Zozketatuko diren egur loteak 2005-2006 denboraldiari dagozkionak izanen dira. Sutarako egurra herriko baso komunaletan markatuta dago eta loteka zenbakituta, eta gaur, lote bakoitzaren jendaurreko esleipena eginen dute, bere garaian izena eman zu-

ten herritarren artean, «hauek gutxienez urte beteko aintzintasunarekin herrian bizi direnak» ondasun komunaletaz baliatzeko eskubidedun izateko ezarritako dagoen betebeharrak egiteko izaki.

Era berean, bandoan oroitarrak da, zozketaz egokitutako sutarako egur loteaz jabetzekotan, Aresoko herritarrek «betebeharrak fiskalak egunean» eduki behar dituztela, herri aprobetxamenduz baliatzeko ezarritako dagoen ordenantzen aitamena egiteaz batera.

NEKAZARITZA ▶

## Nekazal ibilgailuen azterketa tekniko egiteko aukera izanen da Leitzaldean

Leitzara eta Aresora ere etorriko dira traktoreen azterketa egitera

J. ASTIBIA

Nekazal ibilgailuei, traktoreei, Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT delakoa) egiteko aukera izanen da Leitzaldean ere.

Horrela, Leitzara bi egunetan etorriko dira: bihar, ostirala, aurreneko; hilaren 13an, datorren astelehenean, hurrena. Landako industrialdeko apartamentu egokituko duten gunean eginen diete traktoreei azterketa, goizez, 14:00ak bitartean.

Aresora, berriz, martxoaren 24an etorriko direla eman dute jakitera.

Nafarroa osoko herrietara, nekazaritzako jarduerak daudenetara oro har, etorri ohi dira zerbitzu hori eskaintzera; traktoreen etxeetako zenbait tallerrek eskaintzen dute zerbitzua, eta bezero dituzten traktoredun jabeek jakinarazpena bidaltzen omen diete.

**ENBALAJE INDUSTRIALA**  
egiteko mutil bat  
behar da  
iluntzeko 20:30etik aurrera  
deitu  
Tel.: 651 657 982

## ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** Ikastebetean egun dagoen giroa lehen zena baino konplexuagoa da. Batzuk ikasleek gurasoengandik jasotzen duten heziketarako egozten diote errua; beste batzuk, irakasleen profesionaltasun ezari; eta badira bien errua dela pentsatzen dutenak ere. Gizarteak ezinbestean bultzatu al gaitu egoera horretara? Zer uste duzu?



## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Amezketeta.** Euskara Elkarteak lehenengo kantu afaria antolatuta du, Abaltzisketako Antton Iztuetaren laguntzarekin. Bihar, 20:30ean, Goiko lokalean.

**Berastegi.** Hilaren 18an izango dira Inauteriak. Egun horretako afarirako txartelak salgai daude Urepele elkartearen eta Zelai tabernan, 18 eurotan. Bihar da izena emateko azken eguna.

**Ibarra.** Bizi Nahi jubilatuta elkarteko kide batzuk abesbatza osatu nahi dute. Bilerara deitu dute gaur, 19:00etan, egoitza.

**Tolosa.** Udaberri dantza taldeak dei egiten die 15 urtetik gorako neska-mutilen taldean parte hartzera. Interesatuak astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan Igarondo igerilekura agertu besterik ez dute, 20:30ean, edo 699 02 66 18 telefono zenbakira deitu (Aritz).

### ERAKUSKETAK

**Ibarra.** Calcuta, begirada zabalik. Hilaren 15a arte, Benito Izagurre kultur etxean. Ibarrik Misio Taldeak antolatuta, Calcuta Ondoan GKEk egindako lanari buruz. **Tolosa.** Luis Maria Nuñezen margolanak. Hilaren 25a arte ikusgai, Aranburu Jauregian.

### HITZALDIAK

**Ibarra.** 2006rako gazte erronkak izenburupean, LABeko kide baten eskutik. 19:30ean, Gaztetxean.

### INAUTERIAK

**Tolosa.** Karroza eta konpartsen izen-ematea, Aranburu Jauregian. Bihar da azken eguna. **Tolosa.** Zaldunita bezperako danborradarako entseguak: hilaren 13an, 14an, 15ean eta 16an, 20:00etan, Kultur Etxean; eta hilaren 21ean, 20:15ean, Musika Eskolan.

### MUSIKA

**Tolosa.** Txuma Murugarren eta Piztiak. Bihar, 22:30ean, Bonberenean.



## Talai dantza antolatzeko bilerarako deia

**AMEZKETETA** ▶ Urtero legez, aurten ere talai dantza eskainiko du herritar talde batek Inauterietan; igandean eta astelehenetan, hain zuzen ere. Entsegu egunak zehazteko eta egin beharreko

guztiak antolatzeko bilerara deitu dute. Bihar izango da, 19:00etan, balio anitzeko gelan. Dantza nahi duen oro hitzordura joan daitekeela adierazi dute. IMANOL GARCIA

### ZINE-KLUBA

**Tolosa.** Kim Ki Duk zuzendariaren *Hierro 3* filma. 21:30ean, Kultur Etxean.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

**Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.  
**Tolosa.** Azpiroz, M. L. Amaro azua, 9. 943 67 51 18.

### IRRATIA

#### Txolarre Irratia (107.5, 101.2 FM)

**11:00-14:00.** Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAREN errepeaso, agenda, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...

**19:00-21:00.** Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).

**21:00-22:00.** Gora Euscadi Txistulari, Matraiaiko Irratiaren saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.

**22:00-23:00.** Gaur bero musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

## AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
Gorka Ugartemendia Urbieto (Alkiza). Gaur 3 urte. Zorionak etxeko guztien partetik. Ondo pasa.



**URTE ASKOAN**  
Asier Etxeberria Irastorza. Gaur 4 urte. Aita, ama eta Enekoren partetik, zorionak.

**HITZA, zorion agurren**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
**HITZAren egoitzara:** Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**  
Udalatzeko bulegoa - **LEITZA**  
**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!**



**URTE ASKOAN**  
Antonio (Gros). Gaur 61 urte. Denen partetik hain gupto jarraitu. Batez ere, Martinen partetik.



**ZORIONAK, IGOR!**  
Eutsi gogor, aitaboi!  
Jo ta ke irabazi arte!